

22. KORRIKAK Pirritx, Porrotx eta Marimotsi egingo dien omenaldi-ekitaldia Gure Zirkuan gauzatuko da

Aurrera jarraitzen dute 22. KORRIKArekin lotutako ekintzek. San Telmoko aurkezpenean iragarri bezala, edizio honek Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak omenduko ditu. Omenaldi-ekitaldia urtarrilaren 7an izango da, iluntzeko 19:00etan, Tolosan, zirku baten mundu magiko baten barruan, Gure Zirkuarekin elkarlanean.

22. KORRIKAren aurkezpenean aipatu bezala, edizio honek **Pirritx, Porrotx eta Marimotots** pailazoak omenduko ditu; AEKren eledunen esanetan, «beren ibilbidean euskararekiko adierazi duten konpromisoagatik eta ekinagatik; eta orainaldiari eta etorkizunari begira dauden eragileak direlako». Hala, KORRIKAK omenaldi-ekitaldi bat eskainiko dio pailazo taldeari, **Gure Zirkua**-rekin elkarlanean.

Ekimena **urtarrilaren 7an** izango da, iluntzeko 19:00etan, egun horretarako Gure Zirkua izango duen Tolosako karpan. Omenaldia bera zirkuko espektakuluan txertatuko da, «eta erabat integratuta egongo da trapezista, malabarista eta pailazoen izpirituekin» dio Asier Amondok, KORRIKAren arduradunak. «Izan ere, Pirritx, Porrotx eta Marimotots betidanik izan dira oso eragile aktibo; eta hori dela eta, ezin dugu irudikatu beraiek omentzeko bestelako modurik».

Ekitaldirako **sarrerak KORRIKAren webguneko online denda eskuratu ahalko dira**, abenduaren 9an, 10:00etatik aurrera.

Bestalde, ekimena iragartzeko KORRIKAK **bideo bat argitaratu du**, Pirritx Porrotx eta Marimotots beraien eta Iker Galartza Gure Zirkua zuzendariaren parte hartzearekin. Bideoa ikusgai dago AEKren sareetan.

34 urte transmisioa lantzen

Aiora Zulaika, Joxe Mari Agirretxe eta Mertxe Rodriguez (Pirritx, Porrotx eta Marimotots) osaturiko pailazo taldea 34 urte dabil Euskal Herriko plaza eta agertokiak alaitzen. Ibilbide horretan, eta bestelako balorearen artean, euskararen transmisioa landu dute bereziki. Honen harira, Aitziber Balantzategik, AEKren Artezkaritza Kontseiluaren lehendakariak, 22.

^{æk}
22.korrika

**HITZELAN
HITZEKIN**

Amurriotik Donostiara
2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

KORRIKAREN aurkezpenean aipatu zuen: «Haiek transmisioa goitik behera (guraso-ume) eta behetik gora (ume-guraso) landu dute, eta zuzeneko eragina izan dute ume eta guraso askok euskararen hautua egin dezaten. Haiek, haien hitzekin, euskarari ekin zioten, eta eutsi egin diote».

korrika.eus



ARABA

Arana kalea 30, behea
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleten kalea 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus